

## Lanpostu uzteak, 2015ean euskara derrigorrezkoa dela-eta.

---

### **LABek iritzia agertzen du.**

Gai eztabaidagarria izan zen. Legez, JAZek bete behar du Hizkuntz Normalizazioaren Dekretua. Eta hizkuntza eskakizuna beharrezkoa dela EAOn argitaratzean, otsailean ziur aski, hizkuntza eskakizuna ez duten bitarteko langileek lanpostua utzi beharko dute. Aurretik, beste sindikatuek defendatu zuten administrazioak ezin duela inor kaleratu euskara ez jakitea dela kausa. LABek berariazko lehiaketa ebatzi arte lanpostuan mantentzea. Bi jarrera hauek legea ez betetzea eskatzen dute. Bat, lehiaketa erabaki arte, eta bestea, sine die. LABen ustez, Lanpostu Zerrenda aldaketa argitaratzean lanpostu uzteak ez du zentzurik. Kasu askotan bitarteko langileak oso epe motzean utzi beharko baitu lanpostua, lehiaketa ebatzi arte. Aldiz, behin lehiaketa erabakita, hizkuntza eskakizuna duen bitarteko langileak, eta langile titular batek lanpostu hori hartzen ez badu, denak plaza huts izatera pasako dira.

Dagoeneko, 1982 urtetik (Euskararen erabileraren normalizaziorako legea 1982/10) hizkuntza normalizaziorako plangintzak saiatzen dira euskaldunon hizkuntza eskubideak zaintzen, besteak beste, herri administrazioekin izandako harremanetan. Orokorrean, garbi dago helburua ez dela bete eta badirela esparru anitz normalizatu gabe. Eta bereziki, Justiza administrazioan, lehen neurriak atzerapen handiz sartu zirelako indarrean. Lehen dekretua Justizian 2008an sinatu zen. Horren arrazoia? Estatuak aurreko saioa errekurritu zuelako.

Beraz, eta hizkuntza eskakizunen sistema oso eraginkorra ez izan arren, ezin da atzeratu. EAEko administrazioan lan egiten duen orok badaki zenbait lanpostutan euskara jakiteak derrigorrezkoa dela. Norbaitek sinetsi, edo sinestarazi zioten, hizkuntza eskakizuna ez zela beharrezkoa, gezurretan zebilen. Halere, oraindik lanpostu asko daude hizkuntz eskakizunik ez dutenak, edo 2020an indarrean sartuko direnak.

Beraz, behin aplikazio eguna ailegatuta, hizkuntza eskakizuna ez duten bitarteko langileek lanpostu hauek betetzea, titularrekin alderatuz diskriminatzailea dela argudiatuta, gure ustez, demagogiko samarra da. Are gehiago, besteetan hizkuntzaren defentsa aldarrikatzen denean eta IV Akordioaren sinatzean konpromiso hartu genuenean. Bestetik,

hizkuntza eskakizuna ez izatea dela kausa, lanpostua utzi behar duten langileak kalera doazela esatea ez da guztiz egiazkoa: lanpostua uzten denean, lan-poltsara itzultzen da beti, diziplinazko espediente edo borondatezko uztea direla kausa izan ezik. Langile titular eta bitartekoen arteko ezberdintasun nagusia arautzen duen legea hori da: lanpostuaren finkotasuna.

Gure herrian bi hizkuntza ofizialak onartzen dira, behintzat legeak horrela dio; baita, Administrazioan ahalik eta zerbitzu hoberen emateko lan egiten dugu eta langile euskaldunak gai dira bi hizkuntzatan lan egiteko. LABek defendatzen du Administrazioan ahalik eta lanpostu gehienetan langile elebidunak lan egitea, euskara kalitatea hobea lortzeko ezaugarria delako, eta kalitatezko zerbitzu publikoa gure aldarrikapenetako bat delako.

LABek, urtetik urtera aldarrikatu du -arrakasta txikia lortu badugu ere- euskara ikasteko aukera berdina izatea. Bereziki, bitarteko langileek euskarazko ikastaro trinkoetan parte hartzeko eskubidea izatea, hau da, euskara ikasteko liberazioa lortzeko aukera eskaintzea bitarteko langileei ere. Orain, lanpostu uztea saihesteko bidean, euskara ikasteko liberazioa konponketa gisa aurkeztea errealitatetik at dago. Horretaz aparte, orain arte jende guztia ez da euskara ikasteko prest egon, ezta hizkuntza eskakizuna ateratzeko ere. Administrazioak euskara ikasteko baliabideak jarri behar ditu baina ezin du inork behartu euskara ikas dezan. Langile batzuen aukera hori izan da: ez dute euskara ikasi nahi izan eta ez dute profitatu Administrazioak ematen zien aukera (ikastaro ordainduak eta lan ordutegian). Eta kasu honetan titularrentzat lanpostu aldaketa izan daitekeena -edo ez-; bitarteko langileari lan-poltsara bueltatzea suposatzen dio, berriro deitzen dioten arte.

Aldiz, badira langile asko arduratu direla, eta euskara ikasi dutela, eta hizkuntza eskakizuna erdietsi duela, eta zer edozertarako balio beharko zaie, ezta? Hasieran Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak egindako proposamena bai diskriminatzailea zela: Lanpostuen Zerrendak zehaztu ondoren, -bulego batean, hizkuntza eskakizuna zuen langileari jarriko ziotela hizkuntza eskakizuna, eta hizkuntza eskakizuna ez zuen langilea bere plazan gelditzen zela, euskararen betebeharra kentzen baitzioten lanpostu horri-. Horrela, hizkuntza eskakizuna duenak, hau da, euskara egiaztatu duenak, dira lehenak bere lanpostua uzten, euskararen berriazko lehiaketaren bitartez, eta hizkuntza eskakizuna ez dutenek euren lanpostuetan geratuko ziren. LAB izan zen sindikatu bakarra proposamen honen kontra agertu zen bakarra eta hori ez genuela inondik inora onartuko esan genuen.

Egia esanda, egoera honetan dagoen jende askorekin hitz egin dugu, oraingo lehiaketagatik edo datozen lehiaketengatik, eta gehienek ongi baino hobeto ulertzen duten afera. Muturreraino eramanda,

titularren batek esan dezake ezin dituela eskatu hizkuntza eskakizuna dituen plazak, eta bere burua diskriminatua sentitzea plaza zehatz hori eskatu ezin duelako. Harrigarria bada ere, Kudeatzaile arduradun batzuen kasuetan salbuespen bat egingo dutela. Hauetako batzuk hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan daude eta badirudi bertan geratuko direla momentuz. Hau guztia egiaztatzeko Lanpostuen Zerrenden aldaketa itxoiten ari gara.

Azken finean, Lanpostuen Zerrendak aldaketa argitaratu ostean bi aukera daude: euskararen betebeharra ez dutenek lanpostua utzi beharko dute; edo -Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak erabakitzen badu Euskararen berariazko lehiaketa egin arte langile horiek dauden lanpostuetan uztea-, errefortzu moduan gera daitezke soilik. Azken hau, salbuespena izango litzateke, arauak baitio lan poltsan duten tokira joan beharko dutela. Aurrekoetan bezala, LABek eskatu zuen sortutako egunak (oporrak, gehiegizko edota norberaren eginkizunetarako egunak) kontratuz kontratu metatu ahal izatea. Nahiz eta Begoña Otazuak esan informatikoki sistemak ez zuela hori onartzen; zuzendariak, Jon Uriartek, gaia aztertuko zuela gaineratu zuen.

Berariazko Lehiaketa gehiago egongo dira, (hizkuntza eta lanpostuak izango dituen betebeharrak zehatzak direla kausa) eta lehiaketa horietan adierazten diren betebeharrak ez badituzte betetzen lanpostua utzi beharko dituzte behin behineko langileek eta egoera berri honi egokitu beharko diogu. Hau dela eta aukera izanik, LABek jarraituko du lanean langile guztiek aukera berdinak izan ditzaten euskara ikasteko, bitartekoak izan, ala titularrak izan.

2015-01-05

Oharra: Aparteko artxiboan eragindako pertsonen kopurua atxikitzen dugu. Datu horiek atzo bidali zizkiguten.

**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN ERE  
BAI.**